

Maddi Aiestaran Iparragirre

A maila • 1 saria

Soka bakarraren bi muturrek batzen dituzte beldurra eta maitasuna. Eta ez da zeinahi soka: etengabe guztiok oinpean daramagun soka bat da; ordea, zaila egiten zaigu sokaren gainean burutzen dugun mugimendu bakoitzaren kontrola geuk izatea. Korronteak baldintzatzen duelako gure joera: beldurrerantz edo maitasunerantz.

Aholka nezake “heldu gogor sokari eta egin korronteari aurka, edo alde, oreka lortu arte”. Baina ez dut egingo. Batzuetan desoreka izaten baita bizipozaren oinarririk sendoena.



(DES)OREKA

Orekariak
arriskua maite du.
Baina
ez al du beldurrik sentitzen
soka baten gainean
bere gorputz arina
zama bihurtzen denean?

Beldurra
desoreka da.
Zalantza.
Lausodura.
Ezegonkortasuna.
Soka baten gainean
gorputzaren bi oinak
bizitzaren bi oin
bilakatzen dituen
bertigoa.

Erortzeak
beldurra ematen dio
orekariari.
Baina maite du
erortzearen arriskuak

eragiten duen zirrara.
Beldurra.
Hauskortasuna.
Bi aldeen artean
sentitzen duen boterea.
Munduari
sorbalda gainetik
begiratzeko boterea.
Eta boterearen irristakortasuna.

Orekariak
maite du arriskua.
Ezerezaren erdian,
gainean,
zerbait sentitzea:
indarra,
askatasuna,
beldurra.
Norbait izateari uztera doan norbait izatea.
Lurrera lotzen ez duen soka baten gainean.
Airean.
Eta hegan egitea
inoiz hegorik zabaldu ez duen
txantxangorri baten ziurtasunarekin.
Beldurrarekin.

Orekariak
beldurra sorrarazten dion
arriskua maite du.
Beldurrak orekatzen duelako
gogamena,
eta, beraz,
gorputza.
Soka baten gainean
zama bihurtzen den
gorputza.

Orekaria
arriskuak beldurtzen du.
Guztiaren erdian,
gainean,
soka baten hauskortasunak
eragiten dion
hustasunak
beldurtzen du.
Norbait izateari utzi eta ezerez bihurtzeak.
Lurraren ziurtasunik ematen ez duen soka batean gainean.
Airean.
Eta erortzeak,

ezerezean amiltzeak,
hegalak zabaldu aurretik.
Beldurraren soka ertzetik.

Orekaria
hain maitea duen
arriskuak beldurtzen du.
Desoreka sentitzen duelako
oinpean,
eta, beraz,
soinean.
Soka baten gainean,
guziaren gainean,
ez delako
puntu ikusezin bat besterik.

Orekariak
oreka maite du,
askatasuna, sokaren gainean.
Baina
beldurra eragiten dio
erortzeko arriskuak.

Orekaria
beldurtu egiten du erortzeko arriskuak,
desorekak.
Baina
maite du
hauskortasun sentsazioa.

Maite dugunak
beldurtzen gaitu
edo
beldurtzen gaituena
maite dugu?